



**SANEAMENDU-SAREKO MANTENTZE-LANAK EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO
ADMINISTRATIO-KLAUSULA BEREZIEN PLEGUAREN AZALA ESPEDIENTEAREN ZK.: 3289**

Erregulazio bateratua duen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Javier Ruiz de la Hera
4.- Kontratazio Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BBUP-REN SANEAMENDU-SAREA MANTENTZEKO ZERBITZUA 2.- Bete beharreko premiak: Saneamendu-sareko hainbat tokitan dauden instalazioak oso garrantzitsuak direnez, ahalik eta denbora gehienez eskuragarri egon behar dute, beren eragin-eremuan sortzen diren hondakin-urak zuzen tratatzen direla bermatzeko. Instalazio horiek osatzen dituzten elementuak asko eta konplexuak dira, eta tratatzen den produktu-mota dela-eta korrosioa eta zahartze azkarra jasaten dute. Arlo horretan, funtsezkoa da mantentze-lan egokiak egitea, ekoizpen-instalazioen erabilgarritasuna ahalik eta handiena izan dadin bermatzeko. Mantentze-lanak BBUPko langileek gainbegiratura eta kontrolatuta egiten dira. Horretarako, askotariko kontratuak gauzatzen dira eta horien artean dago hizpide duguna, bai bolumenarengatik, bai eta bere dedikazioagatik ere. Kontratatu nahi den mantentze-lanen zerbitzuak mantentze-lanen behar orokorrak estaltzen ditu, arrazoi desberdinengatik eremu zehatzetako espezialisten bidez kudeatzen diren lanak izan ezik. 3.- Sortetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Sortetan banatu ez izanaren justifikazioa: Zerbitzu-mailaren akordioaren filosofia aintzat hartuta, zerbitzuaren hornitzailearen (kontratista) eta bezeroaren (BBUP) arteko akordioan oinarritutako zerbitzu-modalitate bat da, eta helburua zerbitzu horren kalitate-maila finkatzea da. Kalitatea neurtzeko aurretik finkatuta egongo diren parametroak erabiliko dira, adibidez, prestasuna, erantzun-denbora, eskuragarri dagoen dokumentazioa eta abar. Ez da posible sorta bereizietan banatzea, "zerbitzu integral" baten inguruan egituratuta baitago, eta kontratista bakarrak egin behar baitu oso-osorik.
4.- CPV: 45259100-8 Hondakin-uren araztegia konpontzea eta mantentzea
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa salbuetsita)

**BOST MILIOI BERREHUN ETA HOGEITA
HAMABOST MILA ETA BERROGEITA HAMABI
EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO
(5.235.052,28 €), BEZ-A SALBUETSITA.**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 8.725.087,14 EURO.

Sortak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren aurrekontuko urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 212.01.169.33

- 2026. urtea 145.418,11 €
- 2027. urtea 1.745.017,43 €
- 2028. urtea 1.745.017,43 €
- 2029. urtea 1.599.599,31 €

5.- Prezioak berrikustea:

☐ BAI ☒ Ez

Aplikatzekoa den formula:

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HIRU (3) URTE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ. Gehienez ere bi (2) luzapen, bakoitza urtebetekoa (1).

4.- Berme-epea: URTEBETE (1).

5.- Kontratua betetzeko tokia: BBUP-REN INSTALAZIOAK

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (1.745.017,43 €)

G.- GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Kontratuaren xedearen antzekoak diren instalazioak mantentzeko lanen zerrenda, azken hiru urteetan egindakoak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea, edo urteko batezbestekoarena, hori kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada.

Kasu honetan, egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 1.221.512,20 € edo gehiago izatea.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio iritzien arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailerak kontratua egikaritzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztien deskribapen zehatza barne, jarraian adieraziko den ordenan.

1. Egingo diren lanen irismena.

- Egin beharreko gutxieneko lanen deskribapena, BTBPn jasotako deskribapenari balio erantsia ematen diona (BTBP kopiatze hutsak ez du inolako baliorik eranstean).
- Egin beharreko lanen definizioa eta deskribapena, eskatutako gutxienekoez gain (lizitatzailerak eskaintzen baditu).
- Prebentzio-lanak Gametan banatzeko proposamena (eskatzen diren gutxienekoak eta osagarriak, lizitatzailerak eskaintzen baditu), adierazita zein maiztasunekin egingo diren eta gama bakoitzerako lan-karga, baita ere kontratuaren xedearen irismena betetzeko urtean aurreikusitako guztia, hauek xehatuz: Orduak (lanekoak eta joan-etorriak), langileak, bitarteko materialak, NBEak, etab.
- Aurreikusitako lan-karga (prebentiboa, zuzentzailea, etab.) eta hori egiteko proposatutako lan-indarra, zeregin bakoitzerako aurreikusitako langile-orduak argi eta garbi adierazita.
- Lan-kargaren eta giza indarraren justifikazio xehatua, oporrak, baimenak, lan-absentismoa eta abar kontuan hartuta.

2. Egingo diren lanak egikaritzeko proposatutako programazioa.

- Egin beharreko lanak aurreikusitako epean zer-nola banatuko diren, horietako bakoitzerako aurreikusitako lan-kargaren arabera.
- Epean zehar egingo diren lanen banaketa, kontuan hartuta kokapenak sakabanatuta daudela.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

3. Funtzionamendu-proposamenak.

- Abisatzeko moduak eta prozedura ordutegi normalean, ordutegi normaletik kanpoko lanegunetan, igande eta jaiegunetan, ezohiko beharrak sortzen direnean, larrialdietan eta abar mantentze-lan zuzentzaileak egiten hasteko epeak betetzeko.
- BBUPrekin eta, zehatzago, Prebentzio Arloarekin, Ustiapen Arloarekin eta Mantentze Lanen Arloarekin behar bezala koordinatzeko erabili beharreko metodologia.
- Informazioa erregistratzeko eta bere GMAOn kargatzeko erabiliko den metodoa. Zein maiztasunekin egingo den.

4. Kontratua betetzeko antolamendu-egitura eta proposatutako taldea (bereizi egin beharko da lantalde bakoitzerako: SLA, LAGUNTZA eta G&A).

- Antolaketa-egitura eta langileen zerrenda, kontratista-delegatutik hasita beheraka.
- Aurreko ataleko pertsonen CVA, prestakuntza eta lanbide-esperientzia jasota (gehieneko luzera: orrialde bat pertsonako).

5. Kontratua betetzeko langileen presentzia eta prestasuna (bereizi egin beharko da lantalde bakoitzerako: SLA, LAGUNTZA eta G&A).

- Langileen presentzia eta prestasuna (kopurua, kategoria eta espezialitatea xehatuta) ordutegi normalean, ordutegi normaletik kanpoko lanegunetan, igande eta jaiegunetan, ezohiko beharrak sortzen direnean, larrialdietan eta abar.
- Taldearen definizioa eta eraketa
- Bajen eta oporren kudeaketa

6. Prestakuntza-plana

- Langileen prestakuntza-beharrak identifikatzeko metodoa, kontratuan egin beharreko lan-ezaugarrietan oinarrituta.
- Kontratuari esleitutako kontratistaren langileentzako prestakuntza-plana.

7. Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak.

- Instalazioen deskribapena (aldagelak, tailerrak eta bulegoak).
- NBEak eta babes kolektiboko ekipoak.
- Erreminten eta ekipo elektronikoen zein neurketakoen deskribapena. Banaketa eta adjudikazio-proposamena (komunak, pertsonalak...).
- Ibilgailuak
- Bitarteko osagarriak: aldamioak, garabiak, plataformak, ekipo elektrogenoak eta abar, propioak edo azpikontratatuak (azpikontratatzea aurreikusita bada, enpresa-hornitzaileekiko konpromisoa erantsi behar da).
- Hornitzaileekiko konpromisoak: azpikontratatzeko bada, hornitzaileekin sinatutako konpromisoa erantsi behar da.

8. Ordezko piezak eta suntsikorak



BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Gomendatutako ordezeko piezen zerrenda balioetsia aurkeztu beharko da, baita hornitzaileekin sinatutako konpromisoa ere.
- Aurreikusitako suntsikorrak xehatu beharko dira eta bakoitzaren fitxa teknikoa atxikiko da, baita ere hornitzaileekin sinatutako konpromisoa.

9. Azpikontratazioa

- Bere irismena xehatuko da (administrazio-klausula berezien pleguan jasota egonez gero).

10. Kontrol-sistemak.

- Kontratu honetarako aurreikusitako laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko kontrol-sistemak. Lan eta Ingurumen Arriskuen Prebentzio Planaren aurrerapen espezifiko eta ez-orokor bat sartzea.
- Kontratu honetarako aurreikusitako kalitate-kontrolako sistema. Lanak gauzatzeko proposatutako autokontrol-plana sartzea.
- Lizitatzailaren arriskuen prebentzioarekin, ingurumenarekin eta kalitatearekin lotutako ziurtagiriak eta homologazioak gehitzea.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailak edo bere ordezkariak sinatu beharko du, eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) I. ERANSKINAREN arabera (prezio unitarioak) eskaintako prezio unitarioak.
- b) II. ERANSKINAREN arabera (neurketak eta aurrekontua) eskaintako kontratuaren neurketak eta aurrekontua.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailaren profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒Kontratazio-mahaia

Presidenteak:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekorekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Si $0,8 \times BM < Bi \leq BM$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times B_M)}{0,2 \times B_M}$$

Si $B_M < B_i \leq (B_M + B_{\max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - B_M)}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

Baldin eta $(B_{BB} + B_{\max}) / 2 < B_i \leq B_{\max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - B_M - B_{\max})}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia 30 puntu

- Egingo diren lanen irismena. (6 puntu).
- Egin beharreko lanak egiteko proposatutako programazioa (8 puntu)
- Funtzionamendu-proposamenak. (6 puntu).
- Lanen programazioa: Jardueren iraupen justifikatua, koherentzia jardueren banaketa sekuentzialean eta lortutako xehetasun-garapen maila. (8 puntu).
- Kontrol-sistemak (2 puntu).

Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak 20 puntu.

- Antolamendu-egitura eta proposatutako lantaldea kontratua betetzeko (lantaldeak bereiziko dira: subrogaziorik izan ezin dezaketen langileak)..... (4 puntu).
- Kontratua betetzeko langileen presentzia eta prestasuna (bereizi egin beharko da lantalde bakoitzerako: SLA, LAGUNTZA eta G&A).(4 puntu).
- Prestakuntza-plana..... (5 puntu).
- Lanak betetzeko esleitutako bitarteko materialak..... (5 puntu).
- Ordezko piezak eta suntsikorrak..... (2 puntu).

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiagoa. Berdinketak egonez gero, plantillako desgaitasuna duten langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillako emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarra dagoenean, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 unitate gutxiago dituenen.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 unitate baino gutxiago dituenen.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko % 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da % 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko % 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa % 10 unitatetan baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztean badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerik hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxienezko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Zerbitzuaren xedea bermatzeko zehapen hauek ezarri dira:

- Zehapenak prestasunarengatik
- Zehapenak MTTRrengatik
- Zehapenak auditoretzarengatik

ZEHAPENAK PRESTASUNARENGATIK


- ZEHAPENAK KOKAPEN-MOTARENGATIK

SLA kokapen-mota bakoitzaren prestasuna GMAOn kalkulatu da abiapuntutzat hartuta kokapen bakoitzaren prestasunak eta kokapen-mota multzoari dagozkion haztatutako pisuak. Horretarako, zenbatuko dira 12 egoeran egon diren OTak, eta geldialdiak sortu dituztenak kokapen bakoitza osatzen duten azpiprozesuak eta prozesuak osatzen dituzten lerro funtzionaletan.

Kokapen-bakoitzaren prestasuna (hilabetean neurtuta) gutxienez % 99koa izan behar da, eta txikiagoa den bakoitzean zehapen bat aplikatu da, honela:

- Prestasuna % 98koa denean horrelako kokapen-motan ziurtatu beharreko hilabeteko balioari % 5eko zehapena aplikatu da. Prestasuna % 99 - % 98 artekoa bada, zehapena interpolazio linealaren bidez kalkulatu da.
- Prestasuna % 95koa denean horrelako kokapen-motan ziurtatu beharreko hilabeteko balioari % 10eko zehapena aplikatu da. Prestasuna % 98 - % 95 artekoa bada, zehapena interpolazio linealaren bidez kalkulatu da.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK



- ZEHAPENA KOKAPEN BEREZIENGATIK

Kokapen-motarengatiko zehapenaz gain, kokapen berezien zehapena ere ezarri egingo da:

- ERANDIOKO PONPATZE-ESTAZIOA
- LAMIAKOKO PONPATZE-ESTAZIOA
- ONTZIALDAKETAKO PONPATZE-ESTAZIOA
- UNIBERTSITATEKO SIFOIA
- ETXEBARRIKO EKAITZ-TANGA
- KONTROL ZENTRALIZATUKO POSTUA (KZP)

Kokapen berezi horien prestasuna egunero eta indibidualizatuta kalkulatu da. Modu horretan, bakoitzaren prestasuna % 95 baino gutxiagokoa den egun bakoitzeko, bakoitzari 100,00 euroko zehapena ezarriko zaio.


- ZEHAPENAK MTTR-RENGATIK

Prestasuna bezala, kokapen-moten hilabeteko MTTRren batezbestekoa GMAOn kalkulatu da.

Sare osorako MTTRa (hilabeteen neurtuta) gehienez ere lau egunekoa izango da eta gaitzen duen bakoitzean zehapena ezarriko da, honela:

- MTTR 5 denetan kokapen-moten multzorako ziurtatu beharreko hilabeteko balioari % 2ko zehapena aplikatu da. MTTR 4 eta 5 artekoa bada, zehapena interpolazio linealaren bidez kalkulatu da.
- MTTR 6 denetan kokapen-moten multzorako ziurtatu beharreko hilabeteko balioari % 4ko zehapena aplikatu da. MTTR 5 eta 6 artekoa bada, zehapena interpolazio linealaren bidez kalkulatu da.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK




- AUDITORIAGATIKO ZEHAPENAK

Prestasunarekin eta MTTRrekin gertatzen den bezala, kokapen-moten hilabeteko batezbestekorako hilabeteko auditoretzako ohar bat ezartzen da eta horren ondorioz, GMAOn kalkulatu den zehapena sortuko da.

Auditoria-oharrak (hilean behin neurtuko da) gutxienez 9koa izan behar duela ezartzen da, eta ohar hori txikiagoa den bakoitzean, zehapen bat aplikatuko da, honela:

- Auditoria-oharra 7 edo gutxiagokoa denean, kokapen-moten multzorako eta laguntza-talderako ziurtatu beharreko hilabeteko balioari % 4ko zehapena aplikatuko zaio. Auditoria-oharra 9-7koa bada, zehapena interpolazio linealaren bidez kalkulatu da.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK



- BESTE ZEHAPEN BATZUK

Aurrekoez gain, beharrezkoa da kasu hauetarako zehapen osagarriak ezartzea:

- Eskatutako gutxieneko prebentiboa bi hilabetez jarraian urratzea.
- Prestasunarengatiko, MTTRrengatiko edo auditoretza-ohararengatiko zehapenak aplikatu izanagatik hiru hilabetez jarraian.

Lehenengo kasuan, hileko zehapena aurreikusitako mantentze-lan prebentiboa bete ez duen SLA mota-bakoitzari dagokion hilabeteko ordainsari finkoaren % 10ekoa izango da.

Bigarren kasuan, hileko zehapena izango da SLA mota-bakoitzari dagokion hilabeteko ordainsari finkoaren % 10ekoa izango da eta horri prestasunari dagokion ondoko ondoko zehapena aplikatuko zaio. Aurrekoaz gain, SLA kokapen-mota guztiei dagokien hilabeteko ordainsari finkoaren % 10ekin zehatuko da, baldin eta MTTRri dagokion ondoko ondoko zehapena aplikatzen bada. Aurrekoaz gain, SLA kokapen-mota guztiei dagokien hilabeteko ordainsari finkoaren % 10ekin zehatuko da, baldin eta auditoretza-oharari dagokion ondoko ondoko zehapena aplikatzen bada.

Zehapen guztiak banakakoak, ez baztertzailleak eta metagarriak izango dira.

Zehapenak metatzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake, SPKLn ezarritako moduan.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.

Kontratuaren xede diren lanak gauzatzean, adjudikazioduna kalteen erantzule bakarra izango da eta bere kabuz eta arriskupean konpondu beharko ditu.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Adjudikaziodunek aseguru-poliza bat eratu beharko dute, baldintza teknikoen plegu honen xede den kontratua garatzen den bitartean pertsona, eraikin, instalazio edota ibilgailuetan (BBUPkoak edo hirugarrenenak) izandako kalteak estaltzeko.

N.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Bai, BTBPn jasotako eranskinaren arabera. Bertan agertzen da gaur egun aurreko kontratuan lanean ari direnak eta subrogazio-printzipioari atxikita daudenak.

Gaur egun eskuragarri dagoen plantilla indartzeko langileak kontratatzen badira, BBUPri berariaz jakin beharko zaio eta beharrezko aurrerapenarekin.

Adjudikaziodunak BBUPri jakinarazten ez badizkio bere kabuz egin dituen eta aurreko paragrafoan aipatu diren aldaketak, kontratua suntsiarazi ahalko da.

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒BAI ☐EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

- SLA (SERVICE LEVEL AGREEMENT) BIDEZKO KUDEAKETA

Kontratu honen baldintza espezifikoen xedea da kontratuaren zati bat kudeatzea (SLA prozesuak). Horretarako, zerbitzu-mailako akordio bat egingo da eta hauek ahalbidetuko ditu:

- Ziurtatzea kontratistak laguntzen duela sarearen prestasuna handitzen.
- Ziurtatzea mantentze-lanak egoki egin direla mantentze-lanen planaren jarraipena, kontrola eta hobekuntza egiteko sistema baten bidez.
- Mantentze-lanak etengabe hobetzea.

SLA parteari dagokion kontratuaren zatiaren ordainketak parte finko bat izango du eta langile laguntzaileei dagokien ordainketa kalkulatzeko adjudikatutako oinarrizko unitate-prezioa benetan egindako unitateekin biderkatuko da.

- SLA ORDAINKETA FINKOA

Ordainketa finkoa kalkulatzeko SLA bidez neurtzen diren kokapen-motei dagozkien ordainketa finkoak batzen dira eta hauen menpekoea da:

- Kokapen-mota bakoitzaren prebentziozko mantentze-lanek behar duten lan-edukia.
- Kokapen-motaren prestasuna galtzeak duen garrantzia Galindoko sare osorako.

SLA kokapen-mota bakoitzari dagokion hileko ordainketa finkoa SLA kokapen-mota bakoitzaren adjudikaziokoa izango da.

- PRESTASUNA (D)

Prestasunaren asmoa da neurtzea sarea zenbat denboran dagoen prest, hau da, zenbat denboran ez dagoen zerbitzuz kanpo.

Prestasuna GMAOren bidez neurtuko da lerro funtzionalaren, azpiprozesuaren, prozesuaren, kokapenaren eta kokapen-motaren mailan.

Kokapenen barnean sei (6) leku daude:

- ERANDIOKO PONPATZE-ESTAZIOA
- LAMIAKOKO PONPATZE-ESTAZIOA
- ONTZIALDAKETAKO PONPATZE-ESTAZIOA
- UNIBERTSITATEKO SIFOIA
- ETXEBARRIKO EKAITZ-TANGA
- KONTROL ZENTRALIZATUKO POSTUA (KZP)

Gainera, beste 2 (BI) kokapen daude, espediente honen bizitzan zehar irismenean sartuko direnak.

- SUPERPORTUKO PONPAKETA 1-2-3
- GALINDOKO EKAITZ-ANDELA

Aurrekoen ezaugarri bereziak direla-eta (tamaina, sarearen multzoan duten garrantzia eta abar) kokapen bereiztat joko ditugu eta prestasuna kalkulatzeko, gainera, modu bereizian kontuan hartuko dira.

- KONPONTZEKO DENBORA (MTTR)

Konpontzeko denboraren edo MTTRren asmoa da neurtzea zenbat denbora igaro den kontratari elementu jakin baten akatsa jakinarazten zaionetik kontrata zerbitzua emateko baldintza onenetan iristen den unera arte.

MMTR GMAOren bidez neurtuko da eta berbera izango da kokapen-mota guztietarako.

- MANTENTZE-LANEN AUDITORETZA

Kontratua indarrean dagoen bitartean, BBUPk Mantentze Auditoriak egingo ditu, kontratistak egindako mantentze-lanen emaitza neurtzeko, honako hauen ikuspuntutik:

- Egindako lanen ebidentziak
- Segurtasuna lanetan
- Lanen kalitatea
- Gauzatzeko metodologia
- Etengabeko hobekuntza

Kontratistaren bikaintasun-maila eta saneamendu-sarearen mantentze-lanak kudeatzeko duen modua ezagutzeaz gain, auditoriak ahalbidetu egiten die kontratistari eta BBUPri zehaztea zer-nolako ekintzak gauzatu behar diren hobekuntza-puntu berriak identifikatzeko eta egungo emaitzak hobetzeko.

Mantentze-lanen auditedza egiten denean, mantentze-lanen auditedzaren hileko oharra sortuko da eta berbera izango da sare osorako.